

- **Balio proposamena:**

Ingurumena zaintzen dugu gure produktua ekoizteko orduan, ingurumenarekiko konpromisoa bultzatzeko helburuarekin. Gaur egun dagoen egoera aztertuta, xaboi naturalak egitea erabaki dugu, olio birziklatuarekin, ingurumena gutxien kaltetzen duen metodoa erabiliz. Kalitate oneko xaboa salduko dugu, kalitate-prezio erlazio ona duena.

Landare estraktu eta olio mota ezberdinak nahastuz bezeroaren azalera hoberen egokitzen diren jaboia ekoiztuko ditugu, PH neutrodunak. Azal desberdinetara moldatzen diren produktuak eskainiko ditugu, bezero guztien beharretara egokitzeko. Xaboi mota horien artean, umeen azalentzat aloe vera estraktua erabili dugu; nerabeentzako erromeroa, mosqueta arrosa azaleko markak kentzeko, hinojoa, zelulitisa desagerrarazteko...

Kolore eta neurri desberdinetako produktuak eskaintzen ditugu, esate baterako, 20, 100, 200 eta 1000 gramokoak. Horretaz gain, produktu pertsonalizatuak ekoizten ditugu. ezkontza opariak, hoteletarako etab.

Hasiera batean xaboi naturalak soilik egingo ditugu, baina etorkizun batean aurreikusten dugu kosmetika naturaleko gaiak ere salduko ditugula, gizarteak gero eta eskari handiagoa baitu horrelako produktu ekologikoetan.